

SORGIN DIBERTIGARRIA

Testua: RICARDO ALCÁNTARA

Ilustrazioak: GUSTI

Itzulpena: XABIER OLASO

Kartoizko orriak. 17,5 x 22 cm. 16 or. 12 €

Sorgin dibertigarria (euskara)

ISBN 978-84-9172-312-7. Lehen irakurleak. Kartoizko liburuak.

La bruja divertida (castellano)

ISBN 978-84-1343-192-5. Prelecturas. Acartonados.

A bruxa divertida (galego)

ISBN 978-84-1343-191-8. Prelecturas. Acartonados.

La bruxa divertida (català)

ISBN 978-84-18558-59-7. Prelectures. Cartró.

*SORGIN DIBERTIGARRI HONEK IZENA DU MARI.
JOLAS EGITEN DU GAUEZ, ETA EGUNEZ LO UGARI.*


*BIZI DA, BIZI, GAZTELU ZAHAR ETA SORGINDU BATEAN,
ETA ERAIKITA DAGO ITSASO IZOZTUAREN GAINEAN...*

Beste liburu bat testu errimaduneko istorioen sail dibertigarrian
Protagonistak haurtzaroaren ispilu garbiak dira.
Haurtzaroak, xumetasuna eta askatasuna oinarri, sormenerako
eta josalerako ezin konta ahala aukera ematen baititu.

«Sorgin dibertigarria» izenburuko ipuinak ezin argiago adierazten digu haurrek gaitasun mugagabea dutela irudimenerako eta fantasiarako, eskura duten edozein material erabiltzen ahal dutela jostetarako eta esperientzia ludirako. Liburu hau baino lehen, «Indiar txikia» eta «Pirata ausarta» izan genituen. Ricardo Alcántarak eta Gustik osatutako sortzaile-bikoteak protagonista berezi bat aurkeztzen digute: jakin-min bezalako neska ausart bat. Baina neskaren sorgin-lanak ahots misteriozko batek indargabetzen ditu.

Ricardo Alcántararen testu errimadun erritmikoak Mari sorgina deskribatzen du, eta ongi azaltzen digu nolako trebezia duen edabeekin eta sorginkeriekin. Kontakizun umoretsua da, emozioz josia, eta espero ez dugun bukaera harrigarria du, fikzioaren eta errealtatearen mugan. Istorio ezin egokiagoa da ume txikiari ipuina irakurtzeko eta letra larri idatzitako testuarekin umea bakarka irakurtzen hasteko.

Gustiren irudiek, trazu arinei esker, bertsoen dinamismoa indartzen dute. Magiaz eta adierazgarritasunez beteriko eszenak daude, neskato xaloaren eta katu beltz sinbolikoaren argigarri.



- **Galak:** irudimenezko abentura bat.
- **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera
- **Nabarmentzeko modukoak:** sorginak eta pertsonaia fantastikoak, jolas sinboliko eta dramatikoak, irudimena, umorea, testu errimatuak, hizki larriak. Egile berarena «**Indiar txikia**» eta «**Pirata ausarta**»; ilustratzaile berbera «**Tengo unos pies perfectos**» (KALANDRAKA).
- **Liburuaren aurrerapena:**
<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/sorgin-dibertigarria-eusk>
- **En Kalandraka TV:**
<https://kalandraka.tv/videos/gustavo-a-rosemfet-gusti/>

Ricardo Alcántara

(Montevideo, 1946)

Idazle uruguaitarra. Psikologia ikasi zuen Brasilen, baina Bartzelonara aldatu zen eta harrezkero bertan bizi da, literaturari emana. Ehun liburutik gora eman ditu argitara, nobelak eta haur eta gazteentzako liburuak tarteko direla. Bestalde, honako sariak ere jaso ditu: Austral Infantil (1987), Lazarillo (1987), Apelles Mestres (1990), Serra d'Or kritikaren Saria... Bere ekoizpen literarioa, besteak beste, CCElko Ohorezko Zerrendan, Venezuelako Liburuaren Bankuko Zerrendan eta The White Ravens Zerrendan ere ageri da.

Gusti

(Buenos Aires, 1963)

Ilustratzaile argentinarra da; Artea ikasi zuen eta animazioaren, komikiaren, eta album ilustratuaren esparruetara bideratu zuen bere lana. Aspalditik bizi da Bartzelonan. Besteak beste, Apelles Mestres Saria, Bratislavako Urrezko Sagarra, Ilustrazio Sari Nazionala, Lazarillo Saria, Ilustrazioko Sari Iberoamerikanoaren ohorezko diploma eta Serra d'Or eta Juncada sariak jaso ditu. Bere obra The White Ravens zerrendan, Venezuelako Liburuaren Bankuan eta IBBY Ohorezko Zerrendan nabarmendua izan da. Ilustrazioko graduondokoa eman zuen Eina diseinu-eskolan. Naturarekin zerikusia duten proiektuetan parte hartzen du eta Windown-La Ventana elkartearen sortzaileetako bat da. Arte plastikoak hainbat gaitasun dituzten pertsonekin lantzen dituen elkarte da.

<http://gustiart.com>

www.kalandraka.com

comunicacion@kalandraka.com

www.pamiela.com
etxea

soltxate@pamiela.com